



15_09 colocación inicial de los bancos



16_09 un banco queda en el sitio, el otro lo llevan dentro del bar



22_09 el otro en la posición inicial



18_09 aparecen un banco



21_09 rehabilitación bajo el árbol



21_09 un banco vuelve a la colocación inicial



22_09 uno sigue bajo el árbol



22_09 pablo me cuenta (VOZ EN OFF) que el arbolamiento se lleva el otro. También me cuenta que su padre (trabajó con el arbolamiento en la ciudad) y que los bancos se van a retirar de ahí. Además, él y yo vamos a estar ahí desde que con este tipo de árbol igual que cuando se fue. El arbolado lo hizo el Carrébar cuando se instaló en frente de los edificios. Tienen unas escaleras en el frente del edificio están los dos bancos de este lado.



22_09 como me cuenta cómo va el solar y las bancas



26_09 desaparece el banco de plástico de la casa



28_09 y el de debajo del árbol



28_09 un banco aparece en una zona sombreada



3_10 desaparecen los dos bancos



4_10 el banco pequeño bajo el descompañado



4_10 el banco pequeño bajo el descompañado



4_10 el banco pequeño bajo el descompañado

Zenbait leku-mapa

Aurkeztuko ditudan proiektuen abiapuntuan zalantzan jartzen da espazioa irudikapena den aldetik. Gai horren inguruko nire interesa identitatearen, irudikapenaren subjektu existentzial baten gaineko aurretiko lanetatik dator. Ildo horretan, testuingurua eta subjektua osagai diskurtsiboak dira, halako moldez, non elkarren interpretazio-esparru bilakatzen baitira azkenean. Harreman horren naturalizazioa, testuinguruak subjektuez egiten duen interpretazioa nola hartzen den berezko gauza gisa (eta, beraz, ikusezin bihurtua), horra nire lanaren helburuetako bat. Ikusezin bihurtze hori eragin diskurtsiboa sarri askotan alboratzen delako gertatzen da.

Espazio bakoitza arau zehatz batzuen arabera antolatzen da, «gertabide» bat dauka, eta protagonista bat, eta harekin identifikatu behar dugula suposatzen da. Horren haritik, espazioaren testua, publikotik pribaturako ñabardura guztiekin, ez baitituz bi errealitate independentetzat jotzen, desereikia izan da, berrinterpretatua, artista eta teoriko askok irakurri dute,

agerian uzteko alorrez kanpo egote hori. Kritika prozesu hori irudikapenaren esparru guztietan gertatu da. Espazio publikorako proiektuen kasuan, edo espazioa arazo jotzen duten proiektuen kasuan, batzuetan onartu egiten dira kritika horiek modu teorikoan, baina ez horrenbeste gauzatze praktikoari dagokionez. Monumentuari uko egitea ematen duena baino konplexuagoa da. Hori da, bederen, nik ikusi dudanaren esperientzia.

Testu horretaz, eszenaratutako historia horretaz jarduteko, espazioaz baino areago lekuaz mintzatuko naiz aurrerantzean: hau da, fisikoa dena eta bizipenezkoa barne hartuta. Baina erreparatzen badiogu nola irudikatzen diguten, nola kontaktzen diguten, haren hazkunde eta garapenaren koordinatuak nola ezartzen diren, haren funtzioari erreparatzen badiogu irudikapena den aldetik (hau da, «irudikapenezkoaren» konstante hori), uste dut zenbait auzi ezabatuta geratu direla bidean.

Lekuaren berri izaten dugu haren hainbat kartografiaren bidez: mapak,



errepide sareak, seinaleak... eta sarritan baita mugarren bidez ere, eskuarki ahaztu egiten baitituzte bizipenezko kontuak, eta garrantzia eman erabilgarritasun zentzuari. Zeren eta bizipenezkoaren ahanzturak arrazoi praktiko bat baitu, beharbada. Leku baten hazkunde edo «txukuntze» irizpideak irudikapenezko auzien, eskemen, tipologiaren arabera aplikatzen dira. Horiek dira argudio «nagusiak», ikusgaitasun politiken abiapuntuan daudenak. Baina hori geruza bat besterik ez da lekuan dauden geruza anitzen artean. Irudikapenezko moduan ikusgaiagoa izatea funtzio bat besterik ez baita. Presente dauden beste lekuek ere beren ikusgaitasun arauak dituzte. Ez da beste errealitate bat, beste irakurketa bat baizik, eta beharbada beste irudikapen molde batzuk. Edo gutxienez molde tradizionalagoek erregistratzen ez dituzten beste gauza batzuk bistaratzea da kontua. Izan ere, eskema ideologiko ikusgaia ez baitator beti bizipenarekin bat. Bizipena aniztasuna da. Ez dago bizipen bakar bat, leku bat desberdina da orduaren, urte sasoiaren, zatiketa aniztetako bakoitzaren... arabera. Eta ugaritasun horrek hautsi egiten

du irudikapenerako espazio «bat» izatearen ideia. Politiken aniztasuna. Horrenbestez, espazioaren politikaz hitz egin beharrian, nahiago nuke mikropolitikez mintzatu.

Horregatik, nire lanari aurre egiteko lehen urratsa neure burua subjektu gisa kokatzea da. Nola testu honetan, hala antzezle gisa dudana paperean. Nire lekuaren definizioak ez ditu kanpo uzten beste zenbait leku posible, baizik eta ikusgai uzten du mintzatzen naizen lekua, ukatu egiten du abstrakzioak neutrala dirudienik. Badago zuzendari bat (edo protagonista, edo gidoilaria edo muntatzailea). Eta izendatze horrek begien bistan uzten du beste ikuspen batzuen, beste bizipen batzuen aukera.

Eta beharbada horixe da artista naizen aldetik okupatu behar dudana lekua. Erdian egote hori, erdian nagoela esatea. Eta ez «erabilgarritasunetik» definitutako paper bat izatea. Erabilgarritasuna, letra larriz. Arazo bat konpontzen duena. Edo lekuak daukana. Nola auzokoek, erabiltzaileek hala «profesionalek» espazio profesionalizatu bat dute: plaza batean, auzo batean, eremu



batean. Eta lanbide horietako bakoitzaren optikatik ikusita ez dago gatazkarik. Beharbada gatazka, edo, gatazka baino gehiago, deskoordinazioa, hizkuntza desberdinak mintzatzea... solasean gertatzen dira.

«Erdian egote» hori proiektu bakoitzean taxutuz doan funtzioa da, ez dago a priori definituta, mutatur joaten da. Gatazkaz hitz egiteak beharbada iradokitzen du zuzentzeko, leku zuzenera eramateko premia. Ez da hori kontua, ordea. Gehiago da solasaren mugak ikusgai uztea. Agian errazena izango da esatea tarteko lekuak erakustea dela kontua, lanbide bakoitza (ongi egindako lan bakoitza) bestearekin gurutzatzen diren lekuak.

Adibidez, nire bizipenean kale guztietara ezin naiz berdin iritsi, espazio guztiak ez dira nireak, leku publiko guztiak ez dira benetan publikoak, hazkunde guztiak ez dira egokiak. Horregatik ezin naiteke monumentala izan, monumentuak nolabaiteko zilegiztatze bat dakarrelako, eta batez ere zentraltasun bat, leku zuzenarena. Eta hori ez da sekula izan nire lekua.

«Espazioa interpretatzeko objektu» batzuen bidez -hala jarri diet izena-, leku batzuk kontatuko ditugu: Vigoko Zeharbidea, Santiago de Compostelako San Pedro auzoa, Calaf-eko ibilbideak eta Vigoko Álvarez-en fabrika. Objektu horiek ez dute inolaz ere errotze fisiko bat sortu nahi, ez erabilera zehatz bat, erabiltzeko modu jakin bat, proposatu ere. Haien «funtzioa» da jarraitasunik ezeko lekuak erakustea eta aukera eskaintzea beste ikuspegi batzuk «agertu» daitezen hirigintzan lehenetsi diren erabileren alternatiboak, baina existitzen direnak (edo ez, eta haien absentzia ez-lekuaz ere mintzatzen zaigu).

Esate baterako, auzo baten antolakuntzan badaude idatzi gabeko arauak, nola eta non eraiki eta kokatu behar den erabilera publikoko espazioa. Badira tradizioak, egonkorak ez diren identifikazio prozesuekin zerikusirik ez duten espazioak, hiria sortzean erabiltzen diren planteamendu abstraktueta normalean aintzat hartzen ez direnak. Proposatutako objektuen espezifikotasuna jada presente dauden bizipen horiek



nolabait bistaratuko dituzten dinamikak sortzeko aukeran datza. Ez da haien asmoa ezer aurkitzea, ez existitzen ez zen zerbait sortzea, baizik eta «bizimolde» jakin batzuk aztertzeko perspektiba aldatzea. Esaterako, Vigoko zeharbidearen kasuan ez zen komunitate bat aurkitu nahi, ezta planeamenduzko arazo bat konpondu ere, jada leku horretan existitzen den ordena bat agerian uztea baizik. Itxurazko plangintza ezak ezkututzen du errealtatean badagoela ordena «informal» bat, okupazioa geruza desberdinetan gobernatzen duena. Geruza horiek bizipen desberdinei dagozkie, gainera denbora-erabilera mailakatua dutenak. Horregatik, proposamena ez zen egin nahi izan inposaketa moduan, objektu inposatu ez desiratu gisan, baizik eta lege ikusezin baina existitzen zirenen arabera mugitu eta erabili zitekeen tresna gisa.

Bankuak hiriguneko loreontzitegien 1:1 eskalako kopiak ziren, eta sasoiko loreen argazkia zeramaten jarlekuan. Bankuek borroka materializatu zuten espazio baten alde, lurraldetzea era desberdinean ulertzen duten komunitateen artean

erabilera-mugak jartzearen alde: formalagoak (parke formalagoak erabiltzen dituztenak edo erabileraren ideia formalago bat dutenak, nahiz erabilerarik ez egin) eta ez hain formalak (espontaneoena, bankuak bereganatu zituztenak beren espazio sozialean -urbanizatu gabeko kale-kantoi bat- erabiltzeko).

Beste kasu batzuetan, hala nola *Nos caminos*, CGAC, Vigo 2007, objektuak, lan-maketa bat, diskurtsoak bideratzeko balio du. Ez dira istorio berriak, denok ezagutzen ditugun istorio zaharrak baizik -areago, leku jakin batzuetan (auzo elkartetako argitalpenak, liburuxkak...) bilduta dagoen jakintza-, baina lekuan aurkitzen ez direnak, alegia: espazialki bistaratuak. Jendeak kontatzen dituen istorio horietako leku garrantzitsu guztiak ezin dira lurraldean ikusi. Eta solaskideek beren buruarekin bitartekaritza egiten dute, antzezle nagusi bilakatzen dira inongo castingik egin gabe. Maketak auzoa erreproduzitzen du erdialderik gabe, fabrika baten inguruko erradio moduko hazkundearen adibidea, eta jendaurreko

erakusketak iraun artean plaza bihurtzen da. Hain zuzen ere fabrikaren amaierarekin desagertu den plaza. Hala ere, diskurtso guztien erdigunea izaten jarraitzen du, lurra ibaiarekin, fabrikarekin eta berriro ibaiarekin elkartzen duen zentroa. Eta lekuaren gaineko istorio horiek, espazioaren testu horiek ordena ikusgaia bezain egia dira. Profesionalizatzeko beste modu bat da.

Santiago de Compostelako San Pedro auzoko plazen kasuan bezala, bertan testuak eta ordena ikusgaia ez baitaude horren urrun. Onartutako ordena. Ohitu egin gara beti espero den erantzuna ematera, iraingarri jotzera aparkatzeko espazioari berrogeita hamar zentimetro kentzea, eta aldi berean baita lekuekiko gure eguneroko harremanez hitz egitera ere. Ohitu egin gara gure bideetan gauzak hazten ikustera.

Beraz, pentsatu dut erdian egotea dela nire papera. Eta muntatzea (suturatzea). Eta ahotsa ematea (bikoiztea). Bizipenari lekua ematea.

Eta batzuetan, lekua emate horretan, lurralde-borroka horretan, bitartekaritzaren bidez mintzatzen diren ahotsak agertzen dira (niregana inguratu eta naturalki kontatzen dizkirate beren esperientziak, kexak, eskakizunak). Eta ahots horiek erakutsi zuten itxuraz informalak diren espazio ez oso identitario batzuek lege zehatzak zituztela, bertako biztanleek beren beharrizanen ideia zehatz bat zutela. Eta gainera erakutsi zuten ez zeudela batere pozik beren hitzak era erraz eta estereotipatu batean interpretatuak izaten direlako.

Ahots horiek dira aurkeztutako proiektuen benetako materialtasuna.

Zaila izan arren erakustea.

Eta frogatzea.